Geuria

ARRIGORRIAGA · UGAO · GALDAKAO · ZARATAMO · BASAURI · HEGO URIBE

HERRI KOMUNIKABIDEA
DOAN | GEURIA.EUS | #028
2017ko MARTXOAren 2a

UMORE ONAK 35 URTE
1925ean sortutako Moskorrak Beti futbol taldea izan zen hazia. Egun 14 talde eta 200 jokalari inguru ditu futbol taldeak ‣ 2

URTZI ZARATE
MOZORROGILEA ETA DEKORATZAILEA DA ‣ 22

11.000 biztanle galdu ditu Basaurik azken 30 urteetan, 350 bat urtero

1986an ia 52.000 biztanle zituen Basaurik. Gaur egun 41.000 ditu eta herritarren laurdena 65 urtetik gorakoen adintartean dago

Etxebarrik goranzko joera du eta Galdakaok, Ugaok eta Zaratamok biztanlegoa mantendu egin dute azken hamarkadetan ‣ 5

BASAURI ‣ 8

GAZTE ETA ANITZA
HERRIKO TALDEAK BERRIA

SAKONEAN 2 · IRITZIA 4 · BASAURI 5 · GALDAKAO 12 · ARRIGORRIAGA 16 · UGAO 18 · ZARATAMO 20 · ELKARRIZKETA 22 · HEGO URIBE 24 · AISIA 26 · AGENDA 30 · KONTRA 32

ZARATAMO ‣ 20

Arkotxako trenbide gaineko pasabidea aurten eraikiko du Euskal Trenbide Sareak

Igarobidearen obrak geldiarazi zituen Aldundiak lanak aurrera eramateko baimen bat falta zelako

UGAO ‣ 18

Herriaren 642 urteak ospatuko dituzte hilaren 4an

Indaba lehiaketa, herri bazkaria, kalejira eta Deabru Beltzaken ikuskizuna izango dira

ARRIGORRIAGA ‣ 16

Estropozu taldea, Bizkaiko Taldekako bertsolari txapelketan

Apirilaren 30era arte luzatuko da lehen fasea. 30 taldek hartu dute parte, 200 bat bertsolarik

KOLABORAZIOAK

Biki Pozo *Denak ala inor ez* ‣ 4
Leire Palacios *Atera daiteke* ‣ 4
IvanPer *Politika berriak* ‣ 4
Karmelo Aiesta *Elkarlana* ‣ 6
Dani Maiz *Arretxe eta Touré* ‣ 32
Janire Lopez *Agirreren hitzak Mendizabali buruz* ‣ 32
Arkaito *Tira ba!* ‣ 32

Umore Onakeko umeak entrenatzen / Geuria

KIROLA

Harrobia hezten

Usansoloko Umore Ona Kirol Elkarteak herriko kirol eta kultur arloko proiektuetan hartzen du parte ■ Maiatzaren 27an eta 28an Espainia mailako txapelketa antolatuko dute haurrentzako

testua **MAIDER IBAÑEZ**
laguntzaile **UMORE ONA USANSOLO**

GALDAKAO

1982. urtean hasi zen ofizialki lehiatzen Usansoloko Umore Ona futbol taldea. Urte hartan talde federatua izatea erabaki zuten zuzendaritzakoek, federazioko lehiaketan parte hartu ahal izateko. Hala ere, denboran askoz atzerago egin behar da Umore Onaren inguruko historiaz ohartzeko.

1925ean, Laminako zelaietan, Usansolon bizi ziren lagun batzuek futbol talde bat egin zuten, "Moskorrak Beti" izenarekin. Geroago, 1931n, Umore Ona kirol elkartea sortuko da Kerixetako Gandarias tabernan. Garai hartako zuzendaritza taldea honako hauek osatzen zuten: Juan Sagarminaga, Luis Odiaga, Antonio Leniz, Juan Egiraun, Mariano Gandarias eta Begoña emakumea. Gerra zibila ate joka zebilela etenaldia izan zuten eta garai ilun horiek amaitutakoan lehiaketei ekin zieten berriro ere.

1982ko udaberrian erabaki zen talde federatua egitea Durangoko lehiaketa baten parte hartzeko eta 1982-83 denboraldian federazioko lehiaketan parte hartzen hasi zen. Gaur egunera arte. Taldea federatu zenetik 35 urte igaro dira.

Eskola Txikitik beteranoetara

Gaur egun ezagutzen dugun Umore Ona kirol elkarteak honako talde hauek ditu 2016-2017 denboraldian: Eskola Txiki, Eskola kirola -aurrebenjaminak bi talde, benjaminak bi talde, kimuak bi talde, haurrak bi talde-, kadeteen mailan bi talde, gazte talde bi eta talde bat erregional mailan. Era berean, beteranoen taldeak ere zenbait lehiaketetan parte hartzen du. Guztira 14 talde ditu Umore Onak eta 200 jokalari inguru, "gehien-gehienak usansolotarrak", diote.

> **Bokazioa, errespetua, zintzotasuna, hurbiltasuna, motibazioa eta talde lana** dira Umore Onaren balioak

Bokazioa eta harrobia

Umore Onak zerbitzu publikoaren bokazioa du Usansolon, eskola kirola eta gainerako talde federatuak kudeatzen dituena, "kirola gozatuz, ariketa fisikoaren eta futbolaren bidez", dio Kike Gojenola presidenteak.

Era berean, harrobiaren aldeko apustu sendoa egiten du Umore Onak. "Helburua klub moderno bat izatea da, balioak harrobitik bertatik lantzen dituena eta jokalariek kultur eta kirol arloko ekitaldietan parte hartzen dutena", dio Antton Irusta Umore Onako zuzendaritza batzordeko kideak.

Balioei dagokienez, zerbitzuen bokazioa bera, errespetua, zintzotasuna eta zuzentasuna, gardentasuna, hurbiltasuna, motibazioa eta talde-lana dira entrenatzaileek zein zuzendaritza batzordeak ume eta gazteei irakatsi nahi dietena. Eta bere fruituak ematen ari da.

Espainia mailako txapelketa

Maiatzaren 28an Espainia mailako futbol txapelketa antolatuko dute Usansoloko Meatzeta zelaian. Usansolo Cup da txapelketaren izena eta iaz Basauriko Basconia futbol eskolarekin antolatu zuten.

Aurtengo txapelketan ariko dira, besteak beste, Oviedo, Xixoiko Sporting, Eibar, Athletic Club, Danok Bat, Santander, Txantrea eta Oberena. "Bartzelonarekin harremanetan gaude talde katalanak ere gurean parte har dezan", dio Irustak: "Ziurtatzea besterik ez da falta, baina litekeena da Bartzelona ere kartelean agertzea".

> **Usansolo Cup goi mailako txapelketa** maiatzaren 28an ospatuko da Meatzetako zelaian

Sare sozialetan presentzia

Umore Ona kirol elkarteak, gaur egungo teknologia berrietara egokitzeko beharraz jakitun, iaz bideo bat argitaratu zuten Youtube atarian: 'Umore Ona, indarra, sasoia eta zoriona'.

Bideoak 4 minutuko iraupena du eta Usansoloko herritarrak dira protagonistak. Klubaren nortasuna eta bere filosofia ezagutaratzen du bideoak, neska baten kontakizuna ardatz hartuta.

Eskola Txiki / Geuria

Aurrebenjaminak 2009 / Geuria

Aurrebenjaminak 2010 / Geuria

1925ean sortutako *Moskorrak Beti* futbol taldea da **egun ezagutzen dugun Umore Onaren hazia**

1931n sortu zen Umore Ona kirol elkartea, baina 1982. urtera arte futbol taldea ez zuen federatuta jokatu

Benjaminak 2007 / Geuria

Egun, hamalau futbol talde ditu Umore Onak eta **200 jokalari inguru, gehienak usansolotarrak**

Oviedo, Sporting, Eibar, Athletic, Danok Bat, Santander, Txantrea eta Oberena izango dira Usansolo Cupean

Benjaminak 2008 / Geuria

A Haurrak / Geuria